


## Euskal AEko BPG %3,0ko urte arteko tasaz gehitu da 2015eko hirugarren hiruhilekoan

### Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko hazkundera

2015eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %3,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera; datua aurreko hiruhilekoa baino hiru hamarren hobe da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko aldakuntza. Datu hauek urriaren 29ko Hiruhileko Kontuen Aurrerapenarenak berresten dituzte, urteko tasetan eta hiruhilekoetan.

Euskal ekonomiaren hazkundera 2015eko hirugarren hiruhilekoan Espainiakoaren horixe izan da hiruhileko artean, lau hamarren txikiagoa urte artean eta puntu bat eta lau hamarren handiagoa Eurogunea-19koaren (%+1,6) aldean.



**Eskaintzaren ikuspuntutik**, industriak eta zerbitzuek ekarri dute BPGren urte arteko gehikuntza; lehen sektorean eta eraikuntzan bilakaera negatiboak.

**Industria**, hiruhileko honetan, %3,2 gehitu da urte artean, bigarrenen baino hamarren bat gehiago. Urte arteko honek %0,9ko hazkundera ekarri du aurreko hiruhilekoaren aldean. **Manufaktura-industria** hamarren bat gehiago (%3,3) gehitu da; hiruhileko artean %1,0.

**Eraikuntza**, lehen bi hiruhilekoetan urte arteko hazkundera izan ondoren, %0,2 negatiboa; bigarren hiruhileko tasa baino lau hamarren gutxiago. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,6 gehitu da jarduera.

**Zerbitzuetan**, urte arteko %3,3ko eta hiruhileko arteko %0,7ko hazkunderak.

**1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %**

|                                                            | 2013        | 2014       | 2014       |            |            |            | 2015       |            |            |
|------------------------------------------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                                            |             |            | I          | II         | III        | IV         | I          | II         | III        |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA                                   | -3,5        | -10,0      | -12,3      | -7,0       | -3,6       | -17,1      | -9,9       | -20,1      | -9,9       |
| INDUSTRIA ETA ENERGIA                                      | -2,7        | 1,5        | 1,4        | 1,5        | 2,0        | 1,3        | 0,4        | 3,1        | 3,2        |
| Manufaktura-industria                                      | -2,5        | 2,3        | 1,8        | 2,5        | 2,8        | 2,1        | 0,4        | 3,2        | 3,3        |
| ERAIKUNTZA                                                 | -4,6        | -3,2       | -4,2       | -3,7       | -2,7       | -2,1       | 0,6        | 0,2        | -0,2       |
| ZERBITZUAK                                                 | -1,1        | 1,5        | 0,3        | 1,0        | 1,9        | 2,8        | 3,0        | 3,1        | 3,3        |
| Merkataritza, ostalaritza eta garraioa                     | -1,4        | 2,0        | 0,7        | 1,5        | 2,3        | 3,4        | 3,2        | 3,3        | 3,5        |
| Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb. | 0,6         | 2,1        | 1,9        | 2,1        | 2,1        | 2,5        | 2,6        | 2,3        | 2,2        |
| Gainerako zerbitzuak                                       | -1,9        | 0,9        | -0,7       | 0,1        | 1,5        | 2,6        | 3,0        | 3,3        | 3,7        |
| Oinarritzko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA             | -1,8        | 1,1        | 0,2        | 0,8        | 1,6        | 2,0        | 2,1        | 2,7        | 2,9        |
| Produktuen gaineko zerga garbiak                           | -1,6        | 3,8        | 5,1        | 4,7        | 2,8        | 2,9        | 2,7        | 2,9        | 3,3        |
| <b>BPG merkatuko prezioetan</b>                            | <b>-1,8</b> | <b>1,4</b> | <b>0,6</b> | <b>1,1</b> | <b>1,7</b> | <b>2,0</b> | <b>2,2</b> | <b>2,7</b> | <b>3,0</b> |

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

**Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak**

**Zerbitzuen** urte arteko %3,3ko hazkundera azpisektore guztiei zor zaie. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** (%3,5), **eta Gainerako zerbitzuak** (%3,7; besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) adarretan ditugu hazkunderik handienak. Lehen adarrean eta bigarren hiruhilekoaren aldean urte artekoak bi hamarrenez egin du hobera; **Gainerako zerbitzuetan** lauz. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,2 gehitu dira urte artean, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago.

**Gainerako zerbitzuetan** dugu azpisektore arteko hiruhileko arteko hazkunderik handiena, %0,9; hazkundera ditugu azpisektore guztietan. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,5 gehitu da; %0,3 **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak**.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera positiboa ekarri du, %2,9; 2014ko lehen hiruhilekoan hasitako positibotasunari eusten zaio. Datua bi hamarren hobea da aurreko hiruhileko urte artekoa baino. Hiruhileko artean %0,8ko hazkundera hiruhileko honetan.

## 2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

|                                                            | 2014       |            |            |            | 2015       |            |            |
|------------------------------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                                            | I          | II         | III        | IV         | I          | II         | III        |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA                                   | -4,4       | 3,8        | -5,0       | -12,1      | 3,9        | -7,9       | 7,1        |
| INDUSTRIA ETA ENERGIA                                      | 0,6        | 0,3        | 0,9        | -0,5       | -0,3       | 3,0        | 0,9        |
| Manufaktura-industria                                      | 3,0        | -0,9       | 0,9        | -0,9       | 1,3        | 1,8        | 1,0        |
| ERAIKUNTZA                                                 | -5,5       | -2,4       | 1,1        | 5,0        | -2,9       | -2,8       | 0,6        |
| ZERBITZUAK                                                 | 1,0        | 0,7        | 0,5        | 0,6        | 1,2        | 0,8        | 0,7        |
| Merkataritza, ostalaritza eta garraioa                     | 0,9        | 0,2        | 0,4        | 1,9        | 0,7        | 0,3        | 0,5        |
| Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb. | 2,3        | 1,5        | 0,4        | -1,7       | 2,4        | 1,3        | 0,3        |
| Gainerako zerbitzuak                                       | 0,4        | 0,5        | 0,6        | 1,1        | 0,8        | 0,8        | 0,9        |
| Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA              | 0,4        | 0,4        | 0,6        | 0,5        | 0,6        | 1,0        | 0,8        |
| Produktuen gaineko zerga garbiak                           | 0,6        | 0,8        | 0,5        | 1,1        | 0,4        | 1,0        | 0,8        |
| <b>BPG merkatuko prezioetan</b>                            | <b>0,4</b> | <b>0,5</b> | <b>0,5</b> | <b>0,6</b> | <b>0,6</b> | <b>1,0</b> | <b>0,8</b> |

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

**Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak**

Urte artean %3,1eko hazkundera dugu **Barne Eskarian**; aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Aurreko hiruhilekoan bezala, positibotasun hau bi osagarrietan dugu, Azken Kontsumoko Gastuan eta Kapital Eraketa Gordinean. Kanpo sektorean, urteko inportazio tasak handixeagoak dira esportazioenak baino.

**Familia-etxeetako Azken Kontsumoaren Gastuak (Kontsumo pribatuak)** eutsi egin dio urteko hazkunde-erritmoari, bigarren hiruhilekoa bezalako tasaz. %3,3ko hazkundera dugu hiruhileko honetan; hiruhileko artean %0,6.

**Kontsumo publikoa (Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua)** %3,2 gehitu da urte artean (bi puntu eta hamarren bat gehiago aurreko hiruhilekoan baino) eta %0,7 hiruhileko artean.

## 3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

|                                                     | 2013        | 2014       | 2014       |            |            |            | 2015       |            |            |
|-----------------------------------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                                     |             |            | I          | II         | III        | IV         | I          | II         | III        |
| AZKEN KONTSUMOKO GASTUA                             | -1,2        | 1,5        | 0,4        | 1,3        | 1,8        | 2,5        | 2,3        | 2,9        | 3,3        |
| Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE      | -1,1        | 1,6        | 0,2        | 1,4        | 2,3        | 2,7        | 2,9        | 3,3        | 3,3        |
| Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua       | -1,8        | 1,1        | 1,2        | 1,0        | 0,2        | 2,0        | 0,2        | 1,1        | 3,2        |
| KAPITAL-ERAKETA GORDINA                             | -4,9        | -0,6       | -1,5       | -0,7       | -0,5       | 0,2        | 1,3        | 1,8        | 2,2        |
| Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan | -3,4        | 3,0        | 1,3        | 2,5        | 4,1        | 4,3        | 3,8        | 5,9        | 7,4        |
| Gainerako kapital-eraketa gordina                   | -5,5        | -2,1       | -2,6       | -2,0       | -2,4       | -1,5       | 0,3        | 0,0        | -0,1       |
| BARNE-ESKARIA                                       | -2,1        | 1,1        | 0,0        | 0,9        | 1,3        | 2,0        | 2,1        | 2,7        | 3,1        |
| ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK                  | 0,9         | 3,6        | 3,5        | 2,3        | 3,8        | 4,8        | -1,4       | 1,8        | 1,5        |
| ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK                 | 0,3         | 3,0        | 2,5        | 1,9        | 3,1        | 4,6        | -1,3       | 1,8        | 1,7        |
| <b>BPG merkatuko prezioetan</b>                     | <b>-1,8</b> | <b>1,4</b> | <b>0,6</b> | <b>1,1</b> | <b>1,7</b> | <b>2,0</b> | <b>2,2</b> | <b>2,7</b> | <b>3,0</b> |

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

**Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak**

**Azken Kontsumoko Gastua ( Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetakoa)** %3,3 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,6ko hazkundera.

**Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa)** %2,2 gehitu da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Hiruhileko arteko hazkundera, %1,0. Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeratan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %7,4 gehitu da urte artean eta %3,9 hiruhileko artean. Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- %-0,1 urte artean, %-0,3 hiruhileko artean.

#### 4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

|                                                     | 2014       |            |            |            | 2015       |            |            |
|-----------------------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                                     | I          | II         | III        | IV         | I          | II         | III        |
| AZKEN KONTSUMOKO GASTUA                             | 1,8        | -0,1       | 0,2        | 0,6        | 1,6        | 0,5        | 0,6        |
| Etzeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE      | 0,2        | 1,2        | 0,6        | 0,7        | 0,4        | 1,7        | 0,6        |
| Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua       | 8,2        | -4,8       | -1,3       | 0,2        | 6,4        | -3,9       | 0,7        |
| KAPITAL-ERAKETA GORDINA                             | -2,2       | 0,4        | 0,7        | 1,3        | -1,0       | 0,8        | 1,0        |
| Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan | 1,2        | 2,1        | 2,4        | -1,4       | 0,6        | 4,1        | 3,9        |
| Gainerako kapital-eraketa gordina                   | -3,5       | -0,4       | -0,1       | 2,5        | -1,7       | -0,6       | -0,3       |
| ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK                  | 1,7        | 6,1        | 3,3        | -6,0       | -4,4       | 9,6        | 3,0        |
| ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK                 | 2,4        | 5,2        | 2,8        | -5,5       | -3,5       | 8,5        | 2,7        |
| <b>BPG merkatuko prezioetan</b>                     | <b>0,4</b> | <b>0,5</b> | <b>0,5</b> | <b>0,6</b> | <b>0,6</b> | <b>1,0</b> | <b>0,8</b> |

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

**Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak**

Enplegua (**Dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan**) %1,8 gehitu da urte artean, seigarren hazkundera jarraian. 2015eko bigarren hiruhilekoaren aldean %0,3ko hazkundera

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua gehitu egin da Lehen sektorean eta Zerbitzuetan eta jaitsi Industrian eta Eraikuntzan, berriz. Zerbitzuetan %2,5 gehitu da enplegua urte artean; Lehen sektorean %3,4. Urte artean jaitsierak Industrian, %-0,2 eta Eraikuntzan, %-0,5.

Hiruhileko artean lau sektore handietatik hirutan tasa positiboak. Lehen sektorean %1,9; Zerbitzuetan %0,2. Industrian %0,3ko hazkundera hiruhileko artean. Eraikuntza lehengoan, %0,0.

Urte artean, **BPG** %3,4 gehitu da Araban, hazkunderik handiena; %2,9 Gipuzkoan eta Bizkaian. Hiruhileko artean, Araba %1,1; Gipuzkoa %0,8; Bizkaia %0,7.

#### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhileroko kontuen gaineko prentsa-ohar gehiago (HKE)

Euskal AEko hiruhileroko kontuen gaineko datu-bankua (HKE)